

# COVID 19 Y COMPROMISO SOCIAL DE LAS UNIVERSIDADES PÚBLICAS

## Un llamamiento a la reflexión

La emergencia a la que estamos expuestas por el COVID 19 ha implicado una reorganización de la actividad universitaria que desde luego está suponiendo un esfuerzo importante, tanto a nivel institucional como para el propio estudiantado. Innovar en metodologías docentes, continuar con la investigación, los encuentros académicos planificados, ajustar los planes de estudio, así como repatriar al estudiantado en prácticas en terceros países -entre otras cuestiones-, está siendo una labor por parte del cuerpo docente y de los distintos vicerrectorados que muestra la fortaleza de nuestra Universidad Pública. Las situaciones excepcionales, a veces, sirven para sacar lo mejor de cada cual. *EHU Edonondik* es prueba de ello.

Continuar con la vida cotidiana en condiciones adversas, sin duda es un indicador de salud y capacidad de adaptación. Pero, además, más allá de la resiliencia de las organizaciones, las emergencias como las que enfrentamos son una oportunidad para el propio crecimiento organizacional. En esta línea, las entidades abajo firmantes, creemos que la emergencia posibilita también una oportunidad para, ante situaciones excepcionales como esta, poner la UPV/EHU al servicio de las necesidades sociales que esta pandemia está haciendo visibles. No se trata solo de lograr mantener la actividad habitual con normalidad, sino quizás también de reflexionar activamente sobre cuál debería ser el papel de la UPV/EHU (y de quienes formamos parte de ellas) en la emergencia junto con los agentes sociales presentes en el territorio y su tejido asociativo.

Las ayudas económicas que ha destinado el Ministerio de Universidades para la investigación es una de las fórmulas para materializar la contribución de la academia ante la pandemia. Igualmente, la puesta a disposición de las autoridades sanitarias de los recursos materiales y personales de la UPV/EHU en técnicas diagnósticas y virológicas para hacer frente a la pandemia es una medida que sin duda nos hace sentirnos orgullosos de nuestra universidad.

Sin embargo, creemos que es posible valorar otras posibilidades a través de las cuales el profesorado, el estudiantado, el personal administrativo, e incluso otros colectivos y organizaciones que formamos el ecosistema universitario, podemos colaborar en distintas acciones comunitarias que sirvan para acompañar, especialmente, a los colectivos más vulnerables y que más duramente están enfrentando (y van a enfrentar) las consecuencias de esta pandemia.

Proponer a las facultades pensar sobre los distintos modos en los que pueden comprometerse socialmente con esta emergencia dentro de su jornada laboral (y ponerlo en valor), recoger las diversas reflexiones que seguro el profesorado y personal investigador está haciendo en este sentido, animar al estudiantado a realizar alguna forma de voluntariado social, enfocar los trabajos de fin de grado y fin de máster a mejorar las condiciones de los grupos más afectados por la pandemia (entre otras), son algunas de las posibilidades que los distintos agentes que formamos parte del ecosistema universitario podemos valorar. Todas ellas pueden ser acciones que hagan visible una UPV/EHU con capacidad de dar respuesta a esta coyuntura, extendiendo así su compromiso social más allá de lograr continuar con el ritmo “normal” ante la situación extraordinaria a la que nos enfrentamos.

La acción social de las universidades, donde la academia se pone al servicio de la comunidad, es una tradición de los países del sur que vienen aportando numerosas reflexiones de interés en el marco de la educación para la transformación y posibilita

que la universidad contribuya a los cambios de la sociedad en la que está inserta. Es desde esta lógica, desde donde apostamos no solo por una universidad activa y comprometida en la lucha por el cambio social, sino también por una globalización de la solidaridad, en este mundo que no es nuevo, sino que debe ser, parafraseando a Paulo Freire, también reinventado.

La angustiosa realidad actual ofrece en este sentido un amplio abanico de oportunidades para promover cambios en un futuro cercano y estamos convencidas de contar con una UPV/EHU con la cabeza y los pies en el territorio, al lado de las comunidades más vulnerables desde el punto de visto social y sanitario. Apostar por el desarrollo de estrategias de reflexión y acción conjunta que potencien la vinculación y la co-construcción de iniciativas territoriales para hacer frente a este contexto de emergencia será una buena prueba de ello.

Un momento complicado como este representa una oportunidad para ir tejiendo redes informales entre todas las personas y colectivos que formamos parte de nuestra comunidad universitaria. Si te animas y ves interesante que podamos reconocernos, puedes ponerte en contacto con nosotras a través de los siguientes correos electrónicos:

**Unibertsitate Kritikoa Sarea:** uks@disroot.org

**Grupo de Educación de Hegoa:** hegoagasteiz@gmail.com

**Clínica Jurídica por la Justicia Social:** clinicajuridica.fac.derecho@ehu.eus

## **COVID 19 ETA UNIBERTSITATE PUBLIKOEN GIZARTE KONPROMISOA**

### **Hausnarketa egiteko deia**

COVID 19ak hala eraginda bizi dugun larrialdi-egoera honek unibertsitate-jarduera berrantolatzerara eramán gaitu ezinbestean. Berrantolaketa horrek ahalegin handia eskatu dio erakundeari berari eta baita ikasleei ere. Alabaina, egoera zail honetan, agerian geratu da, halaber, gure unibertsitatearen sendotasuna. Ardura osoz ari dira lanean errektoreordetzako arduradunak, irakasle-taldeak eta beste lankideak, alde batetik, ikasketa-planak eta irakaskuntza-metodologiak egokitu eta eraberritzen; eta, bestetik, ikerketa-lanarekin aurrera jarraitzeko, planifikatuta zeuden ikasketa-topaketak egin ahal izateko, ikasleen praktika bermatzeko edota atzerrian dauden ikasleak berriro etxera ekartzeko egin beharrekoak aurrera eramaten. Salbuespenezko egoerek, batzuetan, geure onenak erakutsi eta ematera bultzatzen gaituzte; *EHU Edonondik* ekimena dugu horren erakusle.

Baldintza zailetan egoerari aurre egin eta ohiko bizitzarekin jarraitzeko gai izateak erakundea osasuntsu dagoela eta egokitzeko gaitasuna ere baduela adierazten du, zalantzarik gabe. Baina egoera honek, erresilentziarako gaitasuna agerian jarri ez ezik, hazkunderako aukerak ere eskaintzen dizkio erakundeari. Are gehiago, dokumentu hau sinatzen dugunok zintzoki uste dugu egoera larri honetan UPV/EHUK gaitasun osoa eta baliabide egokiak dituela pandemia honek agerian utzi dituen gizarte-premietako batzuei erantzuteko. Alegia, gure ustez, ohiko jarduerari normaltasunez eustea ez da UPV/EHUK une honetan duen erronka bakarra. Agian, hausnartu ere egin beharko litzateke zein izan beharko lukeen unibertsitatearen eginkizuna larrialdi egoera honetan, eta zer ekarpen egin beharko lukeen inguruko gizarte-eragileekin eta horien asoziazio-egiturekin batera elkarlanean.

Gizarteari ekarpenak egiteko bide bat da ikerketarako funtsak pandemiari aurre egiteko proiektuetara bideratzea, berriki Unibertsitate Ministerioak egin duen moduan deialdiaren ildotik. Horrez gain, UPV/EHUK bere baliabide pertsonal eta materialak eskaini diezazkioke gizarteari; horixe egin da, hain zuzen ere, diagnostikoan eta biologiako teknikan adituak diren pertsonak eta erabiltzen dituzten laborategiak, osasun-agintarien eskura jarri direnean. Zalantzarik gabe, harro sentitu behar du gure unibertsitateak horregatik guztiagatik. Hala ere, beste bide batzuk ere jorra daitezkeela uste dugu. Izan ere, gure erakundea osatzen duten kolektiboek (ikasleak, irakasleak, administrazioko langileak) eta unibertsitateko ekosistema osatzen duten beste talde eta erakundeek laguntza paregabea eskaini diezaiakete pandemia honen ondorioak modu bortitzenean pairatzen ari diren pertsonen eta kolektiboen zein etorkizunean ere ondorio horiek pairatuko dituztenei, ekintza komunitarioetan lankidetzan lan eginez, besteak beste.

Askotariko ekintzak izan daitezke horiek. Fakultateei esku egon daiteke aztertzea zein izan daitezkeen ohiko lanaldiaren barruan larrialdi egoera honetan gizarte-mailako konpromisoa erakusteko ikastegi bakoitzean martxan jar daitezkeen ekimenak; era berean, ekimen horiek balioan jartzen egin dezakete lan. Izan ere, fakultateek bide egin diezaiakete irakasleek eta ikertzaileek ildo honetan, seguru, egiten ari diren gogoetei. Era berean, ikasleak bultza ditzakete gizarte-boluntariotzako ekintzetan parte har dezaten. Beste aukera bat izan daiteke Gradu Amaierako Lanak eta Master Amaierako Lanak pandemia honek (besteak batzuk albo batera utzi gabe, noski) nabarmen kaltetu eta kaltetuko dituen kolektiboen premiei erantzuteko bideen ikerketarantz bideratzea. Besteak beste, horiek guztiak bide egokiak izan daitezke, erakusteko zenbaterainokoa den UPV/EHUK honelako egoeretan duen erantzuteko gaitasuna. Horren bidez, gure unibertsitateak bere gizarte-konpromisoa berretsiko luke; ohiko jarduerak “normaltasunez” aurrera eramateko duen konpromisoaz harantzago berretsi ere.

Hegoaldeko herrialdeetan oso errotuta dago unibertsitateek komunitatearen zerbitzura egon behar dutelako ideia, eta, horrenbestez, unibertsitatearen berezko ezaugarri edo tradizioztat jo daiteke gizarte-ekintzarako konpromisoa. Tradiziotik datorren konpromiso honi esker, unibertsitateak oso gogoeta baliagarriak egiten ditu, eta, horien bidez, eraldaketa ahalbidetzen duen markoa eratzen du, horrela, gizarte-erlaketan ere eragiten du bera txertatuta dagoen ingurunean bederik. Logika horrek garamatza unibertsitate aktibo eta konprometitua aldarrikatzera. Paulo Freirek zioenaren ildotik, etengabe berrasmatu behar da mundua, eta eraldaketa horretan unibertsitateak gizarte-aldaketaren alde ez ezik, elkartasunaren globalizazioaren alde ere egin lezake luke lan.

Zentzu horretan, egungo errealitate larriak aukera zabalak eskaintzen ditu aldaketak eragiteko, eta batez ere, ikuspegi sozial eta sanitariotik egoera zaurgarrienean duden komunitateen alde lan egiteko. Seguru gaude UPV/EHU prest dagoela erroak dituen lurralde honetan bere onenak eskaintzeko. Horren erakusgarri argia izan daiteke lurraldeko beste eragileekin batera hausnarketa- eta ekintza-estrategia bateratuak ahalbidetzea, eta egoera larri honi aurre egiteko ekimenen koeraikuntza sustatzea.

Izan ere, une zail honek abagune ezin hobe eskaintzen digu unibertsitate-komunitatea osatzen dugun pertsona eta kolektibo guztien artean sare informalak ehuntzen joateko. Animatzen bazara, eta elkar ezagutzeari interesgarri baderitzozu, jarri gurekin harremanetan honako helbide elektronikoak erabilita:

**Unibertsitate Kritikoa Sarea:** [uks@disroot.org](mailto:uks@disroot.org)

**Hegoako Hezkuntza Taldea:** [hegoagasteiz@gmail.com](mailto:hegoagasteiz@gmail.com)

**Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoa:**  
[clinicajuridica.fac.derecho@ehu.eus](mailto:clinicajuridica.fac.derecho@ehu.eus)